# FACULTAD DE QUÍMICA/KIMIKA FAKULTATEA

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA UPV/EHU

# GRADU AMAIERAKO LANA IKASLEAREN ESKULIBURUA

2024ko maiatzean berrikusia

**GIPUZKOAKO CAMPUSA**
**CAMPUS DE GIPUZKOA**
Pº. Manuel de Lardizabal, 3
20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
GIPUZKOA

# LABURPENA

**1. GRADU AMAIERAKO LANA EGITEKO IZENA EMATEA**
Uztailean (ikusi data zehatzak iragarki oholean) izena emateko orria entregatuko da idazkaritzan. Truke programetako ikasleek eta GRALa esleituta daukaten baina uneko ikasturtean defendatuko ez dutenek ere, izena emateko orria entregatu beharko dute. Izena emateko eta GRALa egiteko, graduko 168 kreditu gutxienez gaindituta izan behar dira.

**2. GRADU AMAIERAKO LANEN GAIAK AUKERATZEA**
Urrian (ikusi data zehatzak iragarki oholean) sailek eskainitako GRALetatik bost aukeratuko dira, gehienez, lehentasunaren arabera ordenatuta. Aukeraketa hori GAURen egingo da.

**3. GRADU AMAIERAKO LANAK ESLEITZEA**
Urriaren bukaeran Graduko Batzordeak GRAL bana esleituko dio ikasle bakoitzari. Esleipenaren berri posta elektroniko bidez emango zaie bai ikasleei, bai zuzendariei.

**4. GRADUKO IRAKASGAIETAN MATRIKULATUTA EZ DAUDEN IKASLEAK**
GRALa esleituta daukan ikasleak ez badauka graduko irakasgaietarako matrikularik eginda lana egin behar duenean, nahitaez egin behar du GRALaren matrikula ikasturte hasieran.

**5.MEMORIA ETA GRAL-A ZABALTZEKO BAIMENA ADDIra IGOTZEA**
“matrikula” egiteko epea amaitu baino lehen, ikasleak GRALaren memoriaren kopia bat igo beharko du ADDIra (Irakaskuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitalera) eta zuzendariak onartu egin beharko du. Denboraz egin beharko da, informatika arazorik balego ere. Baita ere “GRAL-a Zabaltzeko Baimena” inprimakia igo beharko du ADDI-ra.

**6. GRALaren MATRIKULA**
GRALaren matrikula GAURen egin behar da, ikasleak graduko gainerako kreditu guztiak gaindituta dituenean, GRALari dagozkionak izan ezik.

**7. DEFENTSA ESKAERA**
Ikasturte bakoitzean, defentsa egiteko hiru deialdi daude (martxoa, uztaila eta iraila) eta deialdi berezi bat urrian. GRALa defendatzeko, graduko kreditu guztiak izan behar dira gaindituta. Defentsa aldi bakoitzeko “Eskatu defentsa” egiteko epea itxi baino lehen, ikasleak GAUR bidez eskatuko du defentsa. Defentsarako deialdia eta hizkuntza adierazi beharko dira, eta bertan eskatzen diren datu guztiak bete beharko dira Defentsa eskatu baino lehen. Defentsa eskaera egin ondoren, zuzendariak, eta, hala badagokio, zuzendarikideak, txostena GAURera igoko du. Txostenak jaso arte, Graduko Batzordeak ezingo ditu epaimahaiak sartu, ezta defentsarako lekua, data eta ordua esleitu ere.

**8. GRALaren DEFENTSA**
GRALaren defentsa ikasturte bakoitzean horretarako ezarritako aldietan egingo da. Ikasleari, zuzendariei eta epaimahaiko kideei posta elektronikoko mezu baten bidez jakinaraziko zaie defentsarako lekua, eguna eta ordua. Ikasleak ADDIra igotzen duen GRALa epaimahaiko kideek jasoko dute.

## 1. GRALa EGITEKO IZENA EMATEA

GRALa egiteko lehenengo pausua izena ematea da. Izena eman ahal izateko, gutxienez **168 kreditu eduki behar dira gaindituta, eta, horrez gain, gradua bukatzeko beharrezkoak diren irakasgai guztietako matrikula eginda eduki behar da, GRALarena berarena izan ezik.**

.

GRALa hurrengo ikasturtean egin nahi duten ikasleek izena emateko orria bete eta ikastegiko idazkaritzan entregatu behar dute. Orri hori fakultateko webgunetik jaitsi daiteke ( https://www.ehu.eus/eu/web/kimika-fakultatea/gradu-amaierako-lana ). GRALa kanpoko unibertsitatean egingo duten truke programetako ikasleek ere entregatu behar dute orria.

**Garrantzitsua:** GRALa esleituta baina defendatu gabe daukaten ikasleek ere, hurrengo ikasturtean GRAL bera zein beste bat defendatu nahi badute, izena emateko orria entregatu behar dute.

Izen ematea uztailean egingo da. Data zehatzak fakultateko iragarki oholean argitaratuko dira ikasturte bakoitzean.

## 2. GRADU AMAIERAKO LANEN GAIAK AUKERATZEA

Urrian fakultateko irakasleek eskainitako gaietakoren bat aukeratu ahal izango du ikasleak GRALa egiteko, aldez aurretik fakultateko irakasleren batekin lana egiteko gaia adostuta ez badauka. Data zehatzak fakultateko iragarki oholean argitaratuko dira ikasturte bakoitzean. Dagoeneko GRALaren gaia adostuta daukan ikasleak ez du fase honetan ezer egin behar; zuzendaria arduratuko da izapide guztiak egiteaz.

GRALen gaiak GAURen aukeratu behar dira, “Gradu-Amaierako/Master-Amaierako lanak” atalean.




Atal horren barruan, honen antzeko pantaila bat agertuko da:




"**sartu**" botoia sakatuta, honako pantaila hau agertuko da:




"**Hautatu lanak**" hautatuz gero, honako pantaila honetara heltzen da:




Pantaila honetan "**Bilatu**" botoia sakatu behar da eskainitako proiektuen zerrenda ikusteko.




Proiektu bakoitzaren aurretik agertzen den ">>" ikurrean klik eginda, proiektu bakoitzari buruzko informazioa ikus daiteke.




Bukatzeko, bost lan aukeratu behar dira gehienez (lehentasunaren arabera ordenatuta) “**Selec.**” laukitxoan sakatuta.



Gestión de Proyectos Fin de Carrera - Trabajos Fin de Grado
Facultad de Ciencias Químicas
Desconexión
Acceso a centros
Datos centro
Normativa de centro
Curriculum Vitae
Datos Personales
Domicilio
Formación
Experiencia
Idiomas
Informática
Otros
Generar Currículum
Noticias
Propuestas
Selección proyectos/trabajos
Adjudicaciones
Tutorías Seminarios
Encuestas
Selección de proyectos/trabajos
Título:
Tipo:
Individual / Grupo:
Titulación ofertada:
Grado en
Buscar
Guardar
Ver
Separar
Selec.
Titulación
Título
Tipo
Individual / Grupo
Duración
Idioma
Nº alum. apuntados
La utilidad del salto de línea en
Del propio c
Individual
1/09/2012 - 12/07/2013
Indiferente
1

# 3. GRADU AMAIERAKO LANAK ESLEITZEA

Urriaren bukaeran, GAURen GRALak aukeratzeko epea amaitutakoan, Graduko Batzordeak GRAL bana esleituko dio ikasle bakoitzari, ikasleak berak aukeratu dituen GRALen artetik. Ikasle bik edo gehiagok GRAL bera aukeratu badute, esleipena espediente akademikoaren eta lehentasun ordenaren arabera egingo da. Esleitutako GRALen berri posta elektroniko bidez emango zaie bai ikasleei, bai zuzendariei.

GAUReko “Adjudikazioak” aukeran esleitutako lana zein izan den ikusi ahal izango da.


Adjudicaciones

Listado de proyectos adjudicados

| | Titulación | Especialidad | Título proyecto | Director/a |
|---|---|---|---|---|
| >> | Arquitectura Técnica | | Proyecto 2 | ARTUTXA BENGOETXEA, EIDER |

Eta “>>” botoia sakatuta, haren xehetasunak ikusi ahal izango dira.

## Detalle del proyecto

| | |
|---|---|
| **Título:** | Proyecto 2 |
| **Estado:** | Validado |
| **Tipo:** | En Empresa |
| **Propuesta proyecto:** | No |
| **Individual / Grupo:** | Grupal |
| **Idioma:** | Bilingüe |
| **Titulación:** | |
| **Especialidad:** | |
| **Departamento:** | |
| **Empresa:** | GOIERRIALDEA UTE |
| **Unidad:** | |
| **Descripción:** | ddddd |
| **Grupo de trabajo:** | ttttt |
| **Tareas a desarrollar:** | egin |
| **Objetivos:** | helburuak |
| **Material de trabajo:** | materiala |
| **Horario:** | horario |
| **Horas totales:** | 250 |
| **Duración:** | 4/01/2011-9/05/2011 |
| **Provincia:** | Alava |
| **Localidad:** | Araia |
| **Teléfono:** | |
| **Bolsa de ayuda (euros/mes):** | 100 |
| **Requisitos:** | |
| **Confidencial:** | No |
| **Fecha solicitud defensa:** | |

*Datos relacionados con la dirección del proyecto*

| | |
|---|---|
| **Director/a:** | ARTUTXA BENGOETXEA, EIDER |
| **Email director/a:** | eider.artutxa@ehu.es |
| **Codirector/a:** | ALBISUA GARMENDIA, JOAQUIN |
| **Email codirector/a:** | joaquin.albisua@ehu.es |

Solicitar Defensa | Volver

## 4. GRADUKO IRAKASGAIETAN MATRIKULATUTA EZ DAUDEN IKASLEAK

GRALa esleituta daukan ikasleak ez badauka graduko irakasgaietarako matrikularik eginda lana egin behar duenean, ez dauka UPV/EHUko ikasle izaerarik. Ondorioz, NAHITAEZ EGIN BEHAR DU GRALaren matrikula ikasturte hasieran, eskola asegurua izateko, biblioteka erabili ahal izateko, GAURen sartu ahal izateko, eta abar.

# 5.MEMORIA ETA GRAL-A ZABALTZEKO BAIMENA ADDIra IGOTZEA

GRALak esleitu ondoren, lanei buruzko informazioa ADDIra igotzen da (Irakaskuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitalera). GRALak kudeatzeko gordailu digitala da ADDI eta bertan artxibatzen dira bukatutako GRALak. GRALaren informazioa GAURetik ADDIra pasatzen denean, ikasleak eta zuzendariak posta elektronikoko mezu hau jasoko dute addi@ehu.eus helbidetik:

| Alumno: | Director: |
|---|---|
| Estimad@Usuario<br>Usuario Jaun/Andrea<br><br>Zure Gradu Amaierkao Lana sortu da eta bera eskuratu eta burutu ahal duzu.<br>Se ha creado su proyecto fin de carrera y ya está disponible para que pueda cumplimentarlo.<br><br>Hauek dira datuak:<br>Los datos son:<br><br>Izenburua/Título: *TITULO DEL TFG*<br>Bilduma/Colección: *NOMBRE CENTRO* Zuzendaria/Director: *Nombre Director*<br>Ikasle/Alumno: *Nombre Alumno*<br><br>Zure lana bidaltzeko, mesedez, sartu esteka honetan: Para poder subir su trabajo, por favor, conectese a:<br><br>http://academico.ehu.eus/submissions<br><br>Eskerrik asko!<br>¡Muchas gracias!<br><br>ADDI Akademikoko taldea/Equipo de ADDI-Académico | Gradu Amaierako Lan hau zure zain dago:<br><br>Se le ha asignado el siguiente trabajo:<br><br>Izenburua/Título: *TITULO DEL TFG*<br>Helburuko bilduma/Colección: *NOMBRE CENTRO*<br>Bidaltzailea/Enviado por: *Nombre Alumno*<br><br>Ikaslea lana osoa bidali bezain laster, e-mail berri bat jasoko duzu.<br>Tan pronto como el alumno envíe el contenido del proyecto, se lo notificaremos en un nuevo mail.<br><br>Eskerrik asko!/¡Muchas gracias!<br><br>ADDI Akademikoko taldea/Equipo de ADDI-Académico |

"Eskatu defentsa" egiteko epea amaitu baino lehen, ikasleak bere GRALa amaituta daukanean, memoria igo beharko du ADDIn daukan espaziora. Memoria gordailura nola igo behar den jakiteko, kontsultatu "ADDIn GRAL bat osatzeko gida".

Oharra: Memoriak ezin ditu 500 MB baino gehiago izan. Handiagoa bada, artxibo txikiagoetan zatitu beharko da.

Memoria euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez idatzi ahal izango da, baina laburpen bat eta ondorioen atal bat izan behar du ingelesez idatzia. Memoria oso-osorik ingelesez idatzita badago, laburpena eta ondorioak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batera ere itzuli behar dira.

Ikasleak, baita ere, **GRAL-A ZABALTZEKO BAIMENA** deritzan inprimakia sinatuta igo behardo du ADDIra.

**Garrantzitsua: Zuzendariak berrikuspen lana amaituta eduki behar du matrikula "Eskatu defentsa" egiteko epea bukatu baino lehen. Horregatik komeni da prozesu guztia denboraz egitea, informatika arazorik balego ere.**

# 6. GRALaren MATRIKULA

**GRALaren matrikula egiteko gaindituta eduki behar dira graduko titulua lortzera bideratutako ikasketetako kreditu guztiak (GRALari dagozkionak izan ezik) eta Gradu Amaierako Lana eginda eduki behar da.** Normalean matrikula aldia defentsa aldi bakoitza baino hiru bat aste lehenago irekitzen da. GRALen matrikula eta defentsarako egunak ikasturte bakoitzean argitaratzen dira fakultateko iragarki oholean.

Gradu Amaierako Lanaren matrikula GAURen egiten da, "**Matrikulak**" atalean dagoen **"Matrícula PFC/TFG"** aukeran sakatuta.

**Kontuan izan behar da GRALaren matrikula ikasturteko matrikulan egiten den aldaketa bat dela. Hortaz, ikasleak ez badu matrikularik egin ikasturte horretarako, ikastegiko idazkaritzan egin beharko du GRALaren matrikula.**

**GARRANTZITSUA: Ikasleak ez badauka graduko irakasgaietarako matrikularik eginda GRALa egin behar duenean, NAHITAEZ EGIN BEHAR DU GRALaren matrikula ikasturte hasieran, matrikula egiteko ohiko epeak ireki arte itxaron gabe.**




Arretaz ibili behar da GRALa egiteko eta memoria idazteko erabili den hizkuntza aukeratzerakoan; izan ere, GRALa aukeratzerakoan egindako hizkuntza aukerari eutsi behar baitzaio (eskaintzako hizkuntzak eta lanaren hizkuntzak bat etorri behar dute).

Ikasturte bakoitzean lau defentsa aldi egongo dira: martxoan, uztailean, irailean eta urrian. Urriko defentsa aldia soilik iraileko ohiko deialdira aurkeztu diren eta deialdi horretan lana gainditu ez duten ikasleentzat, edo, beharrezko izatekotan, mugikortasun programetako ikasleentzat.

Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean defentsarako bi deialditara aurkezteko. Bi deialdi horietako batean defentsa gainditu ezean, ikasleak berriro egin beharko du matrikula hurrengo ikasturte batean.

Matrikula egiteko epea amaitu baino lehen, honako hauek aurkeztu beharko dira idazkaritzan: matrikula-frogagiria, matrikula ordaindu izanaren agiria; memoriaren kopia bat, pdf formatuan (CDan); eta memoriaren beste kopia bat paperean, behar bezala koadernatuta. CDan honako hauek adieraziko dira: lanaren izenburua (osorik sartzen ez bada, lehenengo hitzak bakarrik), egilea, ikasturtea eta deialdia (ohikoa edo ezohikoa). Horrez gain, memoriaren kopia digital bat egon beharko da ADDIra igota, lehen adierazi den bezala.

Une honetan, ikasleak eta zuzendariak GRALa konfidentziala izan dadila eskatu ahal izango dute. Konfidentzialtasun eskaera egiteko, aurreko paragrafoan adierazitako dokumentazioaz gain, inprimaki bat aurkeztu beharko da idazkaritzan (inprimaki hori fakultateko webgunean dago eskuragarri). Eskaera arrazoitua izan beharko da eta ikasleak eta zuzendariak sinatu beharko dute.

## 7. DEFENTSA ESKAERA

Ikasturte bakoitzean, defentsa egiteko hiru aldi daude (martxoa, uztaila eta iraila). GRALa aldi horietako batean defendatzeko, "Eskatu defentsa" egin behar da, betiere iragarki tauletan ikasturte bakoitzean argitaratzen den epea itxi baino lehen.

Horretarako, GAUReko "Gradu-amaierako/master-amaierako lanak" aukeran "Adjudikazioak" dioen lekuan sakatu behar da. Agertuko den pantailan defentsarako data (defentsarako aldia) eta hizkuntza aukeratu behar dira (hizkuntza aukeratzerakoan kontuan hartu behar da lana zein hizkuntzatan eskaini zen eta aukeratutako hizkuntzak bat etorri behar du memoria idazteko erabilitako hizkuntzarekin) eta "eskatu defentsa" botoia sakatu. Agertuko den pantailan, GRALaren defentsa zein deialditan egin nahi den aukeratu behar da.

Aurreko paragrafoan aipatutako defentsarako ohiko aldiez gainera, bada urrian defentsa egiteko aldi berezi bat. Hori azken irakasgaia uztailean gaindituta, **GRALa irailean suspenditu dutenentzat** bakarrik da, edo, behar izanez gero, mugikortasun programetako ikasleentzat.

**Oso garrantzitsua:** oso garrantzitsua da deialdietako datuetan arreta jartzea. Defentsa egin ahal izatea data ondo aukeratzearen menpe egongo da, **ezin baita defentsa eguna aldatu**. Administrazioarekin lotutako arrazoiak direla eta, irailean defentsa egin nahi dutenek abuztuko deialdian egin beharko dute matrikula eta urrian defentsa egin nahi dutenek, aldiz, iraileko deialdian.




Eskatu defentsa botoia sakatu ondoren, hurrengo atala agertuko da:




Zuen lanaren detaileak ireki bi gezitxoak sakatuz. Ondorengo pantailan zuen lanaren izenburua aldatu dezakezute eta gainera, erabilitako GHIen berri eman beharko dezute Aldatu Informazio Gehigarria atalean.




"Aldatu Informazio gehigarria" botoia sakatzean pantaila hau agertuko zaigu informazioa osatzeko.










Defentsa eskatuz gero, "Informazio gehigarria" eremuaren berri eman gabe, sistemak arrisku ohar bat erakusten du: defentsa eskatu ahal izateko beharrezkoa da informazio gehigarria lehenago o satzea.




Azkenik, datuak bete ondore “eskatu denfentsa” botoia sakatu.

Defentsa egiteko eskaera egiten denean, zuzendariari berrikusteke duen defentsa eskaera bat agertuko zaio GAURen. Zuzendariak txosten bat idatziko du lanari buruz duen iritzia adierazteko eta txosten hori bidalitakoan, ikasleak berrikuspenaren emaitzaren berri emango dion posta elektronikoko mezu bat jasoko du.

Ikasleak eta zuzendariak GRALa konfidentziala izateko eska dezakete defentsa eskaera egiteko epea itxi baino lehen. **Konfidentzialtasun eskaera egiteko,** aurreko paragrafoan adierazitako dokumentazioaz gain, inprimaki bat aurkeztu beharko da idazkaritzan (inprimaki hori fakultateko webgunean dago eskuragarri). Eskaera arrazoitua izan beharko da eta ikasleak eta zuzendariak sinatu beharko dute.

## 8. GRALaren DEFENTSA

**GRALen defentsa ikasturte bakoitzean horretarako ezarritako aldietan egingo da.** Graduko Batzordeak defentsako epaimahaiak izendatu eta defentsarako eguna eta lekua jartzen dituenean, ikasleak, zuzendariak eta epaimahaiko kideek posta elektronikoko mezu bat jasoko dute defentsa ekitaldira joan behar dutela esanez. Ekitaldi hori publikoa izango da Gradu Amaierako Lana konfidentziala dela zehaztu ez baldin bada. Konfidentziala baldin bada, defentsa ateak itxita egin ahal izango da. Epaimahaiko kideek ikasleak ADDIra igotako GRALa jasoko dute.

Defentsa egiteko hizkuntza GRALaren memoria egiteko erabilitako hizkuntza izango da, lana inskribatzerakoan aurreikusitakoarekin bat.

Ikasle bakoitzak gradu amaierako lanaren defentsa egiteko **ordu erdi edukiko du gehienez** eta denbora tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. **Ondoren, epaimahaiko kideek egin diezazkioketen galdera,** argibide, komentario edo iradokizunei erantzun beharko die.

Defentsa 9,0 kalifikazioarekin edo handiagoarekin gainditu duten eta konfidentzialak ez diren lanei zabalkundea emango zaie UPV/EHUren gordailu digitalaren bidez, honako helbide honetan:

https://addi.ehu.es/

Kalifikazio horretara heltzen ez diren lanak barneko ADDI gordailuan gordeko dira eta fakultateko idazkaritzan baimena eskatu ondoren baino ezingo dira kontsultatu.